

## **Iurretak umeen irakurketaren kluba martxan jarri du**

IURRETA. Gabonak igaro eta gero, herriko libutegiak jakitera eman ditu hurrengo asteetarako prest dauzkan ekitaldirik nagusienak. Berrikuntzen artean 8 eta 12 urte bitarteko umeentzat martxan jarri duen irakurketaren kluba dago. Horrela, datorren otsailaren 15etik aurrera, euskarazko ipuinak zein komikiak taldeka irakurriko dira eta, gero, denen artean solasaldia izango da.

Bestetik, Iurretako Udalak literatur lehiaketa antolatu du hilabete honetarako. Lanak aurkezteko epea ostiralean amaitzen da eta liburutegira eraman behar dira. Udalak bi sailkapen aurreikusten ditu. Alde batetik, bertsoena eta bestetik, kontuena. Sailkapen bakoitza adinaren arabera banatu dira. Horrela, gazteenak 7 eta 8 urte bitartekoak izango dira eta helduenak, berriz, 18 urte gorakoentzat. Sariak ere desberdinak izango dira, adin gutxienekoek 75 euroko saria eskuratuko dute eta 18 urte baino gehiagokoentzat 200 eurokoa izango da. Iurretako Udalak, bihar jarri du lanak aurkezteko azken egun bezala. Hortik aurrera, epaimahai batek aukeratuko ditu irabazleak eta maiatzaren 6an izango da sari banaketa, herriko liburutegian.

Bestalde, apirilean liburutegiak Nazioarteko Haur Gazte Liburuaren Eguna ospatuko du. Horretarako, ilustrazio tailerra izango da martxoaren 14an eta apirilaren 8an; gainera, Alaitz Muroren eskutik, ipuin kontalarien saioa ere gauzatuko da. Maiatzerako berriz, liburutegitik Iurreta ezagutzeko ibilbideak antolatu dira.